

2026ko urtarrila



Esaldi pasiboak

Gaztelaniaren eraginez, maiz erabiltzen ditugu euskaraz pasiboa zein inbertsonala. Gaztelaniazko idatzietan sarri ikusiko ditugu “*Se comunica, se hace saber, se dispone...*” erako adierazpideak, baita “*Han sido llevados, ha sido detenido...*” erakoak ere. Hala ere, esan beharra dago, euskara berez hizkuntza aktiboa dela; eta esaldiak subjektua behar duela, hots, ekintza nork egin duen adieraztea komeni dela, esaldia ulerterrazagoa izan dadin.

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duen araua urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

Gaztelaniaren kalkoz —hark darabilen ‘por’ preposizioaren euskal ordaina eman nahian, *-tik*, *-gandik*, *-gatik* atzizkiak erabilia—, sarri, hutsegiteak egiten dira edo esaldi anbiguoak sortzen dira molde pasiboarekin:

- Arazo hori Osakidetza**atik** ere kontsideratua izan da. ***
- Osakidetza**k** ere kontsideratu du arazo hori.
- Herriko biztanle guzti**gandik** ikusia izan zen. ***
- Herriko biztanle guztie**k** ikusi zuten.

Esaldiek argi erakutsi behar dute **nork** zer egin duen, eta, horretarako, **egitura aktiboak** erabili behar dira, adierazkorragoak eta biziagoak baitira:

- 2025eko abenduaren 11n egindako osoko bilkuraren akta aho batez onartua **izan da**. ***
- Udalbatza**k** aho batez onartu **du** 2025eko abenduaren 11n egindako osoko bilkuraren akta.
- Bileran aipatu **da** oinezkoen bidean ere kotxeak aparkatzen direla. ***
- Bileran **herritar batek** aipatu **du** oinezkoen bidean ere kotxeak aparkatzen direla.

Izan aditzez betetzen da testua egitura pasiboak erabiliz gero. Beraz, saihestu forma hori, eta erabili egitura aktiboa:

- Liburua ikasleek irakurria **izan da**. ***
- Liburua ikasleek irakurri **dute**.
- Erabakia zuzendaritzak hartua **izan da**. ***
- Erabakia zuzendaritzak hartu **du**.



Ohiko erdarakadak



✗ **Atzo goizean etxetik ibili nintzen.**

✓ **Atzo goizean etxean ibili nintzen.**



✗ **Gobernutik esan dute prest dutela aurrekontua.**

✓ **Gobernuak esan du prest duela aurrekontua.**



✗ **Sindikatuetatik babesa eman diote erabakiari.**

✓ **Sindikatuak babesa eman diote erabakiari.**

nondik/non

Askotan, gaztelaniaren eraginez-edo, gehiegizko lerratzea gertatzen da **NONDIK** kasua erabiltzean. **NON** kasua erabili beharko litzateke, baita **NORK** kasua ere.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!

LA RAMPA NO ESTA PERMITIDO
EL ACCESO
CON LOS
SIGUIENTES MEDIOS

ARPALAN EZ DA ONARTZEN
SARBIDEA NIREKIN
HEDABIDEAK

DEBEKATUTA DAGO
ARRAPALAN IBILTZEA
GAILU HAUEKIN:

La rampa no está permitido el acceso
con los siguientes medios:

ARPALAN EZ DA ONARTZEN SARBIDEA NIREKIN HEDABIDEAK ≠
DEBEKATUTA DAGO ARRAPALAN IBILTZEA GAILU HAUEKIN

Zain dezagun euskara!